

EGUNKARIAren

3. urteurrena

Bihar? Ez, etzi

Igandean egingo da belodromoan EGUNKARIAren 3. urteurreneko festa handia

Iragan abenduaren 6an bete zituen EUSKALDUNON EGUNKARIAk hiru urte. Ez da txantxetan pasatzen uzteko moduko urtemuga, eta horregatik euskaldun eta euskaltzale guztien topagune izan nahi duen jai itzela antolatu du aurten ere egunkari honek.

DONOSTIA

Eguneroko bere erronkari eutsiz, hiru urte bete ditu jada EUSKALDUNON EGUNKARIAk, 1990eko abenduaren 6an lehen-dabiziko aldiz argia ikusi zuenetik. Aurrekoak bezalaxe, eguneroko bezero dituen euskaldun eta euskaltzaleekin batera ospatu nahi izan du egunkari honek urtemuga hau, eta horretarako ia bost ordutik luzatuko den jaialdia, antolatu du.

Hori dela eta, musika, dantza eta umorea izango dira etzi Donostiako Anoetako belodromoan jaun eta jabe. Berrikuntzarik izango du gainera aurtengoan



Aurrekoetan bezala, giroa itzela izango da aurtengoan ere. GILLENEA

Egunkari Festak, besteak beste, aurkezleei dagokienez. Orain artekoan 'aurkezle profesionalak' izan ditugu ikuskizunaren gidari: Xabier eta Piter (Xabier Otaegi eta Jose Inazio Ansorena) lehenengoan, eta Josetxo Lizartza eta Maddalen Iriarte iazkoan.

Aurten, ordea, bertsolariek hartuko dute ardura hori. Jon Lopategi, Aitor Sarasua, Arantzazu

Loidi, Maddalen Lujanbio, Estitxu Arozena, Xabier Euzkitze, Iñaki Murua, Millan Telleria eta Imanol Lazkano ariko dira lan horretan. «Egia esan ez da lan handi eta zaila», aitortu digu Maddalen Lujanbiok, «bertso pare bat bota beharko baititugu gehien jota. Aurkeztu beharreko musikari edota artista ezagutzea eta ahalik eta bertso polit eta ori-

ginalenak egitea izango da sekretua».

Eta «ezusteko» aurkezle hauek botatako bertsoen artean, etorriko dira gainerakoak. Batzuk, lehenago ere izandakoak, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak, In Fraganti antzerki taldea eta Gontzal Mendibil kantaria kasu. Beste batzuk, berriz, lehenengo aldiz Egunkari Festan: Bittor Aiepe musikari gaztea eta Ganbara folk taldea esate baterako. «Jaialdiari geuk emango diogu sarrera, horixe izango da gure lana. Gainera, egun horretarako bereziki abesti bat prestatu dugu», azaldu du Ganbara taldeko Garbiñek.

Dudarik gabe, urtarilaren 12an hil zitzaigun Joxemi Zumalabe EGUNKARIAren sortzaile eta kontseilari ordezkariari egingo zaion omenaldia izango da jaialdiko unerik hunkigarriena. Jose Inazio Ansorenak txistua lagun, partehartze zuzen-zuzena izango du horretan: «Gorazarre bat egin nahi diogu, irakatsi zigun guztia eta eginda utzi digun gauza eder hau eskertzeko».

EGITARAUA

Jaialdia

- 18.00etan: **Ganbara** folk taldea
- 18.20etan: hainbat dantza taldeko kideek **polka** dantzatuko dute.
- 18.35etan: **Les Mecaniciens** taldearen emanaldia.
- 18.45etan: **Bittor Aiepe** kantari gaztea.
- 18.50etan: pailazoak.
- 19.05etan: **malabaristak**.
- 19.15etan: **In Fraganti** ren esketxa.
- 19.25etan: **Gontzal Mendibil** kantaria.
- 19.30: **abesbatzak**.

Kontzertua

- 20.30etan: **Anje Duhalde**.
- 21.15etan: **Sorotan Bele**.
- 22.00etan: **Su Ta Gar**.

Sarrerak salgai daude Euskal Herriko leku ugarietan, 1.000 pezeta edo 43 liberatan txartela.

BILBO

MERCED ELIZAN

BERTSOLARIAK:

JON MAIA
UNAI ITURRIAGA

ANTOLATZAILEAK:
HOR DAGO KONPARSA
HAU PITTU HAU KONPARSA
BILBO ZAHARREKO EUSKAL TXOKOA

IMUNTZO
ETA BELOKI
EGAN

GAUR
ABENDUAK 10
gaueko 10etan

Egunkaria

Sarrera 500 pzta.

ADINAK